

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure proiektua aurrera ateratzeko ondorengo jarduerak funtsezkoak izango dira:

Aplikazioa sortzea:

1. Ideia garatzea: Arazo bat identifikatu, helburua eta audientzia zehaztu, eta funtzionalidade nagusiak definitu.
2. Diseinua: Aplikazioaren interfazearen eta erabilgarritasunaren lehen planoak sortu (wireframeak eta prototipoak).
3. Garapena: Programazio tresnak erabiliz aplikazioa eraiki (Android, iOS, edo plataforma anitzeko framework-ak).
4. Probak: Aplikazioa hainbat gailutan probatu, akatsak zuzendu, eta erabiltzaileen iritzia jaso.
5. Argitalpena: App Store edo Play Store-n igo eta erabiltzaileentzako eskuragarri jarri.

Aplikazioa mantentzea: Erabiltzaileen iritzien arabera eguneraketak eta hobekuntzak egin behar dira, horretarako, ezinbestekoa da:

1. Akatsak zuzentzea: Erabiltzaileek jakinarazitako akatsak eta arazoak konpondu.
2. Segurtasuna eguneratzea: Segurtasun zaurgarritasunak identifikatu eta konpondu.
3. Funtzionalidade barriak gehitzea: Erabiltzaileen beharrak eta merkatu joerak aztertuta, hobekuntzak edo ezaugarri barriak gehitu.
4. Errendimendua optimizatzea: Aplikazioa arinago eta eraginkorrago bihurtzeko aldaketak egin.
5. Bateragarritasuna bermatzea: Sistema eragileen edo gailuen eguneratzeetara egokitu.
6. Erabiltzaileen laguntza eskaintzea: Arazoei aurre egiteko eta iritzia jasotzeko.

Bezeroak lortzea: Bezeroak lortzeko, bolondresak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak erabiliko doguz. Horrez gain, proba piloto bat egin beharko geunke Jose Andresen proiektuarena, batez be, gure zerbitzua eskala handian ezarri aurretik haren bideragarritasuna, eraginkortasuna eta potentziala ebaluatzeko. Proba piloto honek, aukera emongo deusku ingurune kontrolatu batean arazoak detektatu, prozesuak optimizatu eta erabiltzaileen iritzia jasotzeko.

Komunikazioa: Tik Tok-en, Instagram-en eta Facebook-en bezalako sare sozialetan argazkiak eta bideoak igotzea funtsezkoa izango da gure aplikazioaren berri emateko eta eskuragarri dagozan ekintza barriak komunikatzeko. Horrez gaiz, kaletik kartelak eskegitzea be funtsezkoa izango da aplikazioaren berri emateko.

Finantzazioa lortu

Babes Zibikoekaz harremanetan jarri

Publizitatea egin: Honen bitartez jendea erakartzen saiatuko gara eta aldi berean, diru-iturri bat izango da.